

**Erdi Mailako
Lanbide
Heziketa**

**Informatika eta
komunikazioak**

Sistema mikroinformatikoetako eta sareetako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza**
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Sistema mikroinformatikoetako eta sareetako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Sistema mikroinformatikoak

- Sistema mikroinformatikoetan sistemako softwarea instalatzea eta konfiguratzea.
- Sare lokalen elementuak instalatzea, konfiguratzea eta egiaztatzea, ezarritako prozedurei lotuta.
- Xede orokorreko pakete informatikoak eta aplikazio espezifikoak instalatzea, konfiguratzea eta mantentzea.
- Xede orokorreko pakete informatikoen eta aplikazio espezifikoen erabilera erraztea erabiltzaileari.

Sistema mikroinformatikoen muntaketa eta konponketa

- Ekipamendu mikroinformatikoak muntatzea.
- Sistema mikroinformatikoetan sistemako softwarea instalatzea eta konfiguratzea.
- Ekipamendu mikroinformatikoa konpontzea eta handitzea.

Departamentu sareetako eragiketak

- Sare lokalen elementuak instalatzea, konfiguratzea eta egiaztatzea, ezarritako prozedurei lotuta.
- Sare lokaletako komunikazio prozesuak monitorizatzea.
- Sare pribatuak eta sare publikoak konektatzeko prozesuak egitea.

Sistema informatikoetako eragiketak

- Sistema mikroinformatikoetan sistemako softwarea instalatzea eta konfiguratzea.
- Sistema informatikoetako azpisistema fisikoa mantentzea eta erregulatzea.
- Administrazio eta mantentze prozedurak egitea bezeroaren sistemako softwarean eta aplikazio-softwarean.

- Sistema informatikoetako azpisistema fisiko eta logikoen segurtasuna mantentzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek batez ere zerbitzuen sektorean jarduten du, hain zuzen ere ekipamendu, sare eta zerbitzu mikroinformatikoak muntatzen, konpontzen eta saltzen dituzten enpresetan, edo kudeaketan sistema mikroinformatikoak eta datu sareak erabiltzen dituzten askotariko erakundeetan (ekoizpen arlo eta tamaina guztietakoak).

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Ekipamendu informatikoak instalatzen eta konpontzen dituen teknikaria.
- Informatikako laguntza ematen duen teknikaria.
- Datu sareetako teknikaria.
- Sistema mikroinformatikoetako periferikoen konpontzailea.
- Mikroinformatikako saltzailea.
- Produktu mikroinformatikoen salmentaren arduraduna.
- Telelaguntzako operadorea.
- Sistemetako operadorea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Ekipamenduak muntatzea eta mantentzea.
- Lanpostu bakarreko sistema eragileak.
- Bulegotika aplikazioak.
- Sare lokalak.
- Oinarrizko ingelesa I.
- Enpresa eta ekimena.
- Sareko sistema eragileak.
- Segurtasun informatikoa.
- Sareko zerbitzuak.
- Web aplikazioak.
- Mikroinformatikako aholkularitza eta salmenta.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.